

# ¡AURRERÁ!

---

¡Zer uste dute moro zar oyek,  
Español-agaraitzia,  
gure kopeta beren indarrez  
umill goiberatutzia?  
Mutur zapalak ezdakizute  
zer dan emen jayotzia,  
seme leyalak dakin bezela  
amarengatik ilitzia.

Alper-alperrik faltsokeriaz  
gerran zabilza zu, Gomez,  
ibero-tarren ume jatorrik  
ez dezu garaituko, ez;  
leno litzake errezagoa  
zerua biurtzia auspez  
basamortuan dabiltzan oyek  
goitutzia baño legez.

Ichas arunztik daukatalako  
salkindariak<sup>1</sup> indarra  
eguzki gañez jarri nai dute  
argi gabeko izarra:  
laister zerate opoz ipurdi  
korrika talderi charra,  
biotz argala lotsaz beterik  
erakutsiyaz bizkarra.

Sendogarriya eman dizute  
Inglés-tarren anayak,  
zeren daduzka zaleturikan  
ezkur gozoa jan-nayak:  
leoi marruak zutatu ditu  
Espaiñ gudari ernayak,  
eta baijoaz purrukatzera  
katamotzari errayak.

¡Agur mendiak! ¡Agur ibarrak!  
¡Agur bazter gereitsuak!  
Usai gozoa banaturikan  
egon beti loretsua;  
Kuba-ra goaz, Euskal-erriko  
seme leyal t'agitsuak,  
amacho, tira, besarkara bat,  
zabaldu biltza besuak.

Goazen mutillak chimistan oñez  
odoi beltza urratzera,  
Mazeo-tarrak beti, betiko  
ichaso pian sartzera;  
tuntan soñura<sup>2</sup> irrinz egiñaz  
jaso dezagun bandera:  
orruaz daude bazter guziyak,  
guazen mutillak, ¡¡Aurrerá!!

EMETERIO ARRESE.

Tolosa-n, 1896-ko Marchoan.



(1) Traidores.—(2) Trompa guerrera.